

# UDALETIK

Informazio buletina 3 zk.

ABENDUA 2016



KIÑUKA

## 2017. URTEKO AURREKONTUAK PARTE HARTU!

Udal gobernutik 2017ko aurrekontuak lantzen gabiltza urtarrilaren hasieran aurrekontuok behin betiko onartzeko asmoarekin.

2017ko aurrekontuak 7.801.103 eurokoak dira (2016an 8.088.848 eurokoak izan ziren).

Udal Gobernu honen apustua oinarrizko eta kalitatezko zerbitzuak bermatzen eta mantentzen jarraitzea da. Hau horrela, arlo edo sailetan 2016ko aurrekontu berdina mantentzearen alde egingo da.

Bestalde, aurrekontu hauek inbertsio batzuk ere aurrera ateratzea suposatuko dute eta gainera, Udala buru belarri arituko da eta iadanik ari da, 2017rako beste inbertsio batzuk aurrera ateratzeko.

Aurten ere, Udal gobernuak herri-tarren ekarpenak, zure ekarpenak, iritziak, proposamenak kontuan izan nahi ditu urteko plangintza egiterakoan, parte hartzea eta gardentasu-

na bultzatuz, *"Lekeitio zeure erara"* eraikitzeko.

Beraz, Lekeition erroldatuta bazaudete eta adinagusia bazara, abenduaren 22ra arte egin itzazu Udaleko edozein bulegotan, web orrialdean [www.lekeitio.eus](http://www.lekeitio.eus), parte hartzeko udal e-mail helbidean ([partehartzea@lekeitio.eus](mailto:partehartzea@lekeitio.eus)) edota whatsapp bidez (656702508).

Ondoren, hamar egun buruan, ekarpenak egin dituzten herritar guztiei erantzun zaitzaie. Udal Gobernuak proposamenok baloratu egingo ditu. Abenduaren azken asteetan Ogasun Batzordea deituko da eta herritarrei azalpenak emango zaizkie batzar zabal baten urtarrilaren 9an. Urtarrilaren 12an, Udaleko Osoko Bilkura deituko da eta bertan aurrekontuak eztabaidatu eta, alabada, onartuko dira. Aurrekontuak osotasunean [www.lekeitio.eus](http://www.lekeitio.eus) web orrialdean.

### PRESUPUESTOS 2017 ¡PARTICIPA!

El Ayuntamiento de Lekeitio está elaborando los presupuestos correspondientes al año 2017 para su aprobación en enero. Se cuenta con 7.801.103 euros (el presupuesto de 2016 fue de 8.088.848 euros). Se apuesta por seguir manteniendo servicios básicos y de calidad. En consecuencia se propone mantener las partidas presupuestarias de las diferentes áreas del Ayuntamiento. Si estás empadronado/a en Lekeitio y eres mayor de edad puedes realizar aportaciones y propuestas hasta el 22 de diciembre. Se pueden presentar en cualquier oficina municipal, a través de nuestra web ([www.lekeitio.eus](http://www.lekeitio.eus)), vía mail [partehartzea@lekeitio.eus](mailto:partehartzea@lekeitio.eus) o whatsapp 656702508. El compromiso es responder en un plazo de diez días a las sugerencias y/o propuestas presentadas.

### LEKEITIO ZEURE ERARA egiteko!



[www.lekeitio.eus](http://www.lekeitio.eus)



[partehartzea@lekeitio.eus](mailto:partehartzea@lekeitio.eus)



656702508



@Lekeitio\_Udala



[youtube.com/LekeitiokoUdala](https://www.youtube.com/LekeitiokoUdala)



[facebook.com/LekeitiokoUdala](https://www.facebook.com/LekeitiokoUdala)



lekeitioko  
udala



## lekeitioko udala

# UDAL GOBERNUAREN PROPOSAMENA

2017. urterako Lekeitioko Udalak 7.801.103 euro izango ditu. Udaleko partida batzuk ukiezinak edota alda ezinak dira; pertsonala, herriaren funtzionamendurako gastuak (kale eta Udal eraikinen argiteria, ura, seguruak, garbitasuna, etab.) edota udalak dituen konpromisoak (Lea-Artibai Amankomunazgoko kuota, Garapen Agentziakoa, Eskola publikora eta Ikastolara ekarpena, UEMA-ra ekarpena, musika eskola, musika banda, etab.).

Aurrekontua bere osotasunean ikusi nahi izanez gero, Lekeitioko Udaleko idazkaritzan edo web orrialdean duzu.

Udal gobernuaren 2017. urteko aurrekontu proposamena hurrengo hau da:

## PERTSONALA ETA UDAL ANTOLAMENDUA

# 3.193.617,94 €

Pertsonalaren soldatan %1eko igoera planteatzen da. Guztira Udaletxeko plantillan 80 langile daude. Langileen egoera hobetze aldera pausuak eman dira: Udalean dauden 9 langileri legez aitortu behar zitzaien Udalarekiko duten harreman mugagabea aitortu zaie. Urteetan egon den aldarrikapena izan da. Urteetan egin ez diren barne promozioak ere egin dira. Bestalde, Kiroldegiko Zuzendaritza enpresa baten eskuetan egon da 2014 urtetik baina 2016ko azaroaren 1etik aurrera udal langileriak darama.

## PERSONAL Y ORGANIZACIÓN MUNICIPAL INTERNA

*Se propone una subida salarial del 1%. El Ayuntamiento dispone de una plantilla de 80 trabajadores y trabajadoras. Se han dado pasos para mejorar la situación laboral del personal, como por ejemplo, la regularización de la situación de 9 trabajadores/as, dando respuesta a una reivindicación que viene de años atrás. Se ha impulsado la promoción interna para cubrir vacantes. Asimismo las funciones de coordinación y organización de los servicios del polideportivo se están realizando con personal propio.*

*Para el año 2017 el Ayuntamiento cuenta con 7.801.103 euros, algunas partidas no son modificables tales como personal, gastos de funcionamiento, cuotas a otras entidades (Mancomunidad, agencia desarrollo, escuela pública, Ikastola, UEMA, etc....) La propuesta de presupuestos de 2017 está disponible en su totalidad en la secretaría del Ayuntamiento o en la página web [www.lekeitio.eus](http://www.lekeitio.eus)*

## BESTE BATZUK

# 1.033.891,86 €

Udalaren gastu arrunta edo herriaren egunerokotasunean sortzen diren gastuei aurre egiteko partida.

## OTROS GASTOS

*Partida destinada a gasto corriente y para sufragar los gastos derivados del funcionamiento.*

## HERRI LANAK, ERAIKINEN MANTENIMENDUA ETA INGURUMENA

# 836.393,00 €

Herria irisgarriagoa izateko lanean jarraituko da, arazoak sortzen dituzten guneei irtenbideak emanez. Kaleen mantentze eta hobekuntza lanean jarraituko da (zebra bideak, losak, argiteria, barandak, lorategiak, etabar...)

Zuhaitzen poda eta fumigazio kanpainak ere jarraipena izango dute.

Kalatxorien eta Katuen kontrol kanpainak ere egingo dira.

Lekitarrentzat uda sasoian aparkalekuak ziurtatzeko sistema martxan ipiniko dira.

Zabor bilketa kontratu berria egingo da eta kontenedore barriak ipiniko dira.

## OBRAS, MANTENIMIENTO DE EDIFICIOS Y MEDIO AMBIENTE

*Se seguirá impulsando la accesibilidad en nuestro municipio. Obras de mantenimiento en distintas calles. Campaña de poda y fumigación de árboles. Campaña de control de gaviotas y gatos. Puesta en marcha de un sistema que garantiza plazas de aparcamiento a los/as lekitarras en época estival. Nuevo contrato de recogida de basura, nuevos contenedores incluidos.*

## KREDITUAK EDO ZORRA

# 553.960,00 €

Lekeitioko Udalak dituen kreditoak ordaintzeko.

## CRÉDITOS Y DEUDA

*Para pagar créditos comprometidos.*

## KULTURA

# 452.447,00 €

Urtean zehar hainbat ekintza izango dira. 2017an Zine bileraren 40.urteurrena da eta hurrengoko 12 hilebetetan Lekeitioko Musika Bandaren 150.urteurrena dela eta, kontzertu, hitzaldi, proiektio eta abar antolatu dira.

Aurten ere, Ikusgarri Zine Aretoan egiten den zine eta beste ekintza kulturalen programazioa mantentzeko laguntza jasoko du Zinemazale elkarteak.

Urtero bezala Kaleka, San Pedro eta San Antolin jaiak bultzatu eta sustatu egingo dira.

Herriko kultur ekintzen eskaintza, besteak beste, kultur taldeen lanarekin eta udalaren diru ekarpenekin aurrera eramaten da. Eskaintza, haratago doa, herrian inpaktu ekonomikoa ere badaukalako.

## CULTURA

*El año 2017 se celebrará el 40 aniversario de la Euskal Zine Bilerá y también el 150 aniversario de la banda de música municipal. Se apoyarán actividades culturales en Ikusgarri de la mano de Zinemazaleak. Se trabajará con los grupos culturales para elaborar una agenda plural y diversa que tenga repercusión tanto económica como social en el municipio.*



## HIRIGINTZA INBERTSIOAK

# 547.145,00 €

Herri Antolamendurako Plan Orokorra aurrera eramango da. Besteak beste ondoko lanak aurreikusita daude: Isuntza Arraun Elkarteko teilatua eta Gaztegunean konponketa lanak.

Santa Katalina paseoarene beste fase bat burutuko da, herriko eraztun berdea sortu nahian.

Kirol instalakuntzetan inbertsioak egiten jarraituko da, eskoletako leihoen bigarren fasea, Mendieta ontziola berreskuratzeko proiektua, eta San Andres berritzeko pausoak emango dira.

Plaza merkatuaren behenganea konpondu egingo da.

## URBANISMO E INVERSIONES

*La prioridad en esta área será avanzar en el Plan General de Ordenación Urbana. Además, las inversiones que se prevén son las siguientes: tejado del local de Isuntza Arraun Elkartea, segunda fase del paseo de Santa Katalina con el objetivo de crear el anillo verde. Segunda fase de la renovación de las ventanas de las escuelas públicas. Inversiones en instalaciones deportivas. También se prevé redactar el proyecto de recuperación del astillero Mendieta y avanzar en el proceso de rehabilitación del barrio San Andrés elaborando la documentación necesaria.*

## KIROLA

# 415.031,00 €

Herriaren garapenerako onuragarriak eta inpaktu ekonomikoa duten Kirol ekintzak bultzatzen jarraituko da. Baita herriko kirol elkarteei eta hauek antolatutako ekintzei laguntza ematen ere. 2016/2017 ikasturtean eskeinitako Kirol ekintzen programazioa inoiz baino anitzagoa da eta talde gehiago ere sortu dira. 986 plaza eskeintzen dira. 2017an Udalak besteak beste, Mendi martxa, Spining maratonia eta Bizkaiko kopa trail Lekeitio antolatuko ditu.

## DEPORTES

*Se apostará por eventos deportivos con retorno económico a los diferentes sectores del municipio. Se seguirá apoyando a los clubs y grupos deportivos. Las actividades deportivas dirigidas para el curso 2016/2017 están siendo más amplias y diversas que nunca. Por segundo año se organizarán el maratón de spinnig, Mendi martxa y Bizkaia Kopa Trail Lekeitio.*



@Lekeitio\_Udala



www.lekeitio.eus



youtube.com/LekeitiokoUdala



partehartzea@lekeitio.eus



facebook.com/LekeitiokoUdala



656702508

3



## HEZKUNTZA, HAURTZAROA ETA GAZTETXOEN AISIALDIA

# 310.883,20 €

Ikastolari, Herriko Eskola Publikoari eta Iturriotz Institutiari egiten zaizkien diru ekarpenak mantendu egingo dira. Hezkuntza batzordea ikastetxeen hezkuntza proiektuak berrikusten dabil eta herriko kurrikulumerako herriko gai bat lantzen, gure ume eta gazteek Lekeitioko ondarea ezagutzeko. Herri Eskolako eraikin gorriko leihoen bigarren fasea gauzatuko da. Gaztegunean ere hobekuntza lanak egingo dira. Aisialdiko zerbitzuari dagokionez, kontratua bukatu egin da eta momentu honetan Udala guraso talde desberdinekin harremanetan dago, zerbitzuaren etorkizuna aztertzeko.

## EDUCACIÓN, INFANCIA Y OCIO INFANTIL

*Se propone mantener las aportaciones a los centros escolares del municipio. Se trabajará desde la comisión de educación en la elaboración de un curriculum común para que los/as estudiantes conozcan el patrimonio del municipio. Se plantea ejecutar la segunda fase de cambio de las ventanas de la escuela, así como mejoras en el Gaztegunee. Por último, el Ayuntamiento está trabajando con diferentes grupos de padres y madres para definir un servicio de ocio para adolescentes.*

## GARAPEN EKONOMIKOA

# 226.091,00 €

Kitto elkartearekin hartu emana mantendu egingo da eta ostalaritza sektorearekin harremanetan jarraituko da.

Lekeitio itsas ondare gisa aldarrikatuko da bai turismo eta baita kultura eta gizarte ikuspuntutik ere.

Bisita eta zerbitzu turistiko berriak eskaintzeko lanean arituko da Udala, urtarotasuna saihestuz.

Plaza merkatuaren behenganea konpondu egingo da.

Enplegu eta formazio proiektuak garatzeko pausuak ere emango dira.

## DESARROLLO ECONÓMICO

*Se seguirá colaborando con la asociación Kitto y se prestará la ayuda necesaria para que en el sector de la hostelería también se cree una asociación.*

*Respecto al turismo, se quiere optimizar la eficacia de la oficina de turismo, realizar visitas guiadas a la basílica durante todo el año, garantizar el posicionamiento de Lekeitio en el patrimonio marítimo, ofrecer nuevos servicios turísticos.*

## GIZARTE ZERBITZUAK

# 86.875,00 €

Legeak exigitzen duen Zerbitzuen kartera mamitzen hasia da Udala eta bertan dauden baliabide eta zerbitzuak beharrianak dituzten herritarrei eskeini ahal izateko eragile desberdinekin lanketa egiten ari da. Bestalde, Urribarren Abaroa Erresidentziarekin, urgentziatzko ingresoak dauden kasuetarako hitzarmena sinatuko da.

Gizarte Larrialdietarako eta gizarte programetarako partidak 2016. ekitaldikoak izango dira. Gizarte Zerbitzuetako zerbitzu orokorrak, aholkularitza juridikoa, urgentzi egoerak, oinarrizko gizarte zerbitzuak eta eskuhartze zerbitzuak Lea Artibai Amankomunazgoaren bidez mankomunatuta daude. Azpimarratu baita, Udalletxeak aparte 15.000,00 euroko partida bat gehitzen duela Gizarte Larrialdietarako laguntzen beharriana daukaten lekeitiarrei emateko.

Hirugarren Adinari dagokionez, Jubilatuen Etxearen mantenuan inbertituko da eta Hirugarren Adineko jarduerak eta zerbitzuak eman ahal izateko, Udalak ekarpenak mantenduko ditu. Hirugarren Adinari zuzenduta, zerbitzu berriak eman ahal izateko lanean arituko da Udala.

## SERVICIOS SOCIALES

*El Ayuntamiento está trabajando para dar respuesta a lo que exige la nueva cartera de Prestaciones y Servicios Sociales. Por otra parte, se va a firmar un convenio de colaboración con la Residencia Urribarren Abaroa para disponer de un recurso para casos que puedan necesitar un ingreso urgente en la misma. Se van a mantener las partidas para ayudas de emergencia social, programas sociales, actividades relacionadas con personas mayores, etc. Cabe señalar que la mayoría de los servicios sociales se prestan a través de la Mancomunidad de Lea Artibai. A su vez, el Ayuntamiento dota una partida presupuestaria de 15.000,00 euros para conceder ayudas de emergencia social.*

## EUSKERA

# 74.718,00 €

Euskara alfabetatzeko diru laguntzak ematen jarraituko da 2016an onartutako araudi barriarekin. Ikasle etorkinentzat errefortzuko euskara eskolen kostua beregain hartzen jarraituko du Udalak. UEMAn mantentzea proposatzen da eta HAPO prozeduran ELE proiektua martxan jarriko da.

*Ayudas a la alfabetización en euskera. Clases de refuerzo para jóvenes migrantes en edad escolar. Desarrollo del proyecto ELE (eragin liguistikoa ebaluatzeko tresna) dentro del Plan General de Ordenación Urbana. Financiación a UEMA.*

## PARTE HARTZEA ETA HERRITARREKIN KOMUNIKAZIOA

# 25.550,00 €

2017. urtean ere parte hartze prozesuak ipiniko dira martxan. Aurrekontuen proposamen hau ere parte hartze prozesua da, herritarren Parte Hartzerako Udal Ordenantza martxan jarriko da, herritarrei zuzenduta, urtean bitan, udal aldizkaria argitaratu eta banatuko da. Abaroa jauregiaren erabilera ere zehaztuko da.

Orain arte bezala, besteak beste, Udaleko Sare Sozialak herritarrak informatuta mantentzeko eta euren zerbitzura daude, Udalarekin harremanetan jartzeko tresna gisa.

Web orrialdea aldatu egingo da Udalaren garden-tasuna erakutsiz eta parte hartzea errazte aldera.

## PARTICIPACIÓN Y COMUNICACIÓN

*Se continuará impulsando procesos de participación durante el 2017. Presupuestos, definición de usos para el palacio Abaroa, etc...). Se editarán dos números de Udaletik durante el año. Se mejorará la página web del Ayuntamiento para fomentar y facilitar la transparencia y la participación.*

## GAZTERIA

# 22.500,00 €

18 eta 35 urte bitarteko herriko gazteei zuzendutako etxebizitzaren alokairurako diru-laguntzak bideratuko dira.

Gazteek erabiltzen dituzten lokalen arautze prozesuari hasiera emango zaio.

"Gababusa" zerbitzua mantendu egingo da. Zerbitzua gazteak eskualdeko herrietako jaietara joateko sortu zen eta ondorioz hauek kotxerik ez hartzeko. Zerbitzu honek oso harrera ona dauka gazteen artean, asko erabiltzen da.



@LekittoGazteria

## JUVENTUD

*Se concederán ayudas económicas para alquiler de casas a jóvenes del pueblo de entre 18 y 35 años. Asimismo se iniciará un proceso de elaboración de una ordenanza sobre locales juveniles. Los y las jóvenes dispondrán un año más del servicio "Gababusa" para que no tengan necesidad de desplazarse en coche particular a las fiestas de los pueblos de la comarca.*

## BERDINTASUNA

# 22.000,00 €

2016an Lekeitioko Udaleko II. Berdintasun Planaren ebaluazioa egiten dabil Udala eta ondoren III. Berdintasun Planari ekingo dio. Horretarako herritarrei galdetegiak helarazi zazkie (sare sozialak eta web orrialdearen bidez) eta baita herriko eragileei ere (kultur, kirol,.. taldeak). "Indarkeria matxistaren eta sexu erasoen biktima diren emakumeei arreta hobetzeko" udal protokoloa 2016ko martxoan onartu eta martxan jarri zen. Indarkeriaren biktima izan den emakumearen arretan inplikatuak dauden eragile eta erakundeek osatutako mahai teknikoa, protokoloak dioen moduan birritan batu da eta baita mahai politikoa ere, beharrezkoak diren hobekuntzak egiteko. Esan behar da erakundeen arteko koordinazioa ere estuagoa dela protokoloaren ondorioz. Bestalde udaleko profesional eta politikariek ere formazioa hartzen dabilta Berdintasun teknikariaren eskutik. Emakumea eta Berdintasun Batzordearen lana ezagutarazten jarraituko du Udalak eta Batzordeak herritarrei begirako ekintzak antolatzen.

## IGUALDAD

*El Ayuntamiento está realizando la evaluación del II Plan Municipal de Igualdad. Posteriormente iniciará la elaboración del III Plan. Para ello se han distribuido encuestas. En marzo de 2016 se aprobó y se puso en marcha el "Protocolo de actuación del Ayuntamiento de Lekeitio para la mejora en la atención a las mujeres víctimas de violencia machista y agresión sexual" lo que ha supuesto una estrecha coordinación entre las instituciones que atienden a mujeres víctimas en aras a mejorar la atención. El personal y las personas responsables políticas asisten a sesiones de formación impartidas por la Técnico de Igualdad del Ayuntamiento. Se seguirá dando a conocer la labor de la Comisión de Mujer e Igualdad que continuará con su quehacer habitual y también organizando diferentes actividades.*



@Lekeitio\_Udala



www.lekeitio.eus



youtube.com/LekeitiokoUdala



partehartzea@lekeitio.eus



facebook.com/LekeitiokoUdala



656702508

# ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA

Bizkaiko balore katastralak 40 urtetan gaurkotu gabe egon dira eta Bizkaiko Foru Aldundiak aurten egokitu ditu. Ondorioz, gaurkotzeak etxe zaharrenei edo urte askotan saldu gabe zeramatzatenei egoitze handiagoa suertatu zaie. Etxe berriagoei eta orain dela gutxi saldu direnei, aldiz, gutxiago.

2017rako ondasun higiezin gaineko zerga arautzen duen zerga-ordenantzaren aldaketan, hau da, ordenantza fiskalen aldaketan, nabarmenena, etxe-hutsei aplikatuko zaien errekgua izango da.

2016ko azaroaren 10ean egindako Osoko Bilkuran etxe hutsei %50eko errekgoa ezartzea erabaki zen alderdi politiko bien adostasunarekin. Neurri honen helburu nagusia alokairuaren merkaturaren dinamizatu eta gazteei emantzipatzeko baliabideak eskaini ahal izatea da.

Alde batetik 2.200 etxe daude hutsik Lekeition eta bestetik, lekeitiar askorentzat edota Lekeition

bizi nahi dutenentzat, etxebizitza bat salmentan zein alokairuan aurkitzea ez da batere lan erraza izaten.

Arazo honek hainbat irtenbide izan ditzake baina Lekeitioko Udalak lehen pausua eman du urteko hilabete gehienetan hutsik dauden etxebizitzak merkatura irteteko, batez ere, alokairuko merkatura.

Neurri honekin bilduko den zenbatekoaren zati bat gazteen emantzipazioa bultzatzera zuzenduko da: gazteei laguntza ekonomikoa emango zaie etxea alokatzeko erraztasunak eskainiz.

Aldiz, ondoko kasuetan ez da inongo errekgurik aplikatuko:

1. Errentan utzitako etxebizitzak
2. Alokairuan emateko helburuarekin entitate publiko baten esku jarritako etxebizitzak
3. Erortzeko zorian dauden edo birpartzelatze proiektu onetsia duten etxebizitzak
4. Ostatu, pentsio edo hotel diren etxebizitzak, baldin eta dagoen jarduera lizentzia badute.
5. Erabilera profesionaletarako, merkataritza- edo enpresa-erabilerrako etxebizitzak
6. Etxejabea zendu ondoren hutsik geratu diren etxeak
7. Etxejabea zahar-egoitzan sartzeagatik hutsik geratu diren etxebizitzak
8. Adinagatik edo mendekotasun egoeragatik, etxejabea beste etxe batera eraman denean edo haren etxea hutsik geratu denean.
9. Etxejabea edo haren ezkontidea, lanagatik, Autonomia Erki-degotik kanpo dagoen beste udalerrri batera bizitzera joatean hutsik geratzen diren etxebizitzak
10. Zergaren sortzapen-ekitaldiaren aurrekoan gas- edo argindar-kontsumoak dituzten etxebizitzak. Urteko gutxieneko batazbesteko kontsumoa 1950KWH-koa izango da gas-ri dagokionez, eta 1500 KWH-koa argi-indarrari dagokionez.

Salbuespen hauek eskatu nahi dituzten pertsonek, Udal bulegoetan egin dezakete eskarera 2017ko urtarrilaren 2tik martxoaren 30era







# IMPUESTO DE BIENES INMUEBLES - IBI

**Los valores catastrales de Bizkaia que llevaban 40 años sin actualizar este año han sido modificados por la Diputación Foral de Bizkaia.**

**Al ser una actualización las viviendas más antiguas o que llevaban más años sin ser vendidas han tenido una subida proporcionalmente mayor que las más nuevas o las recientemente vendidas, ya que estas últimas tenían el valor catastral más actualizado.**

La principal novedad incluida este año en la ordenanza fiscal de Impuesto de Bienes Inmuebles (IBI) es un recargo del 50% a la vivienda vacía, es decir aquella en la que no hay nadie empadronado/a.

Este Recargo ha sido aprobado en el pleno del 10 de noviembre de 2016 con los votos favorables de los dos partidos políticos con el objetivo principal de dinamizar el mercado de alquiler de viviendas y facilitar recursos para la emancipación de los jóvenes.

Hay que mencionar que a pesar de que en Lekeitio hay 2.200 casas vacías, los lekeitiarras o las personas que quieren vivir en Lekeitio

tienen dificultades para encontrar una casa en alquiler o en venta. Este problema puede tener diversas soluciones y por ello el Ayuntamiento de Lekeitio ha dado este primer paso para intentar conseguir que aquellas viviendas que están vacías la mayor parte de los meses del año salgan al mercado, sobre todo, al mercado de alquiler.

Parte de lo que se recaude con este recargo se destinara a fomentar la emancipación de lo/as jóvenes a través de una ayuda económica que les facilite el alquiler de una vivienda.

El recargo no se aplicará a los propietario/as que se encuentren en algunas de las siguientes situaciones:

1. Las viviendas arrendadas.
2. Las viviendas cedidas a programas públicos para su arrendamiento.
3. Las viviendas en situación de ruina o con proyecto de reparcelación aprobado.
4. Las viviendas destinadas a alojamiento, pensión u hotel siempre que cuenten con la licencia de actividad correspondiente.
5. Las viviendas destinadas a usos profesionales, comerciales y empresariales.
6. Las viviendas que hayan quedado vacías por fallecimiento de su propietario/a.
7. Las viviendas que hayan quedado vacías como resultado del ingreso de su propietario/a en residencias de la tercera edad.
8. Las viviendas que hayan quedado vacías por motivos de edad o dependencia y que requieran el traslado del propietario a otra vivienda.
9. Las viviendas que hayan quedado vacías como consecuencia del traslado del propietario/a del inmueble o de su cónyuge a otro municipio fuera de la Comunidad Autónoma por razones laborales.
10. Viviendas que tengan consumos de gas o electricidad en el ejercicio inmediatamente anterior al devengo del impuesto. El consumo mínimo anual sería de 1950KWH de gas o de 1500 KWH de electricidad.

Aquellas personas que deseen solicitar las exenciones deberán solicitarlo en las oficinas municipales a partir del 2 de enero de 2017 y hasta 30 de marzo del mismo año.



# HAPO - PGOU

Herri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) datozen urteetan Lekeitioko udalerrriaren lurzorua hirigintza ikuspegitik eta osotasunean antolatuko duen dokumentu edo plangintza da.

Denbora igaro da indarrean dagoen plan orokorra 1996ko martxoan behin betikoz onartu zenetik (orduan Arau Subsidiarioak deituak). Ordutik hona, hogeitaldaketa puntual baino gehiago jasan ditu dokumentuak, azkena, 2007an behin betikoz onartutakoa.

Urte hauetan egoera asko aldatu da: krisi ekonomikoa, jarduera ekonomikoen moteltzea, eraikuntza sektorearen gain-behera, etxebizitzaren salmenten beherakada nabarmena... Bestalde, araudiari dagokionean, 2006. urtean Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, onartu zen; Gernika-Markinako Lurralde Plan Partziala, Plan Sektorial batzuk,...Ondorioz, gure plan orokorrak egokitzen batzuk egin behar ditu eta araudi hauetako zehaztapenak bereganatu.

Prospektiker enpresak 2009an eta Elhuyar enpresak 2013an egindako parte hartze prozesuen ondoren, eta datuak eguneratu ostean, 2016. urtean lantalde batzuk osatu ziren. Bertan, aurreko prozesuetan oinarrituz, herriaren antolamendurako giltzarriak aztertu ziren ikuspuntu ezberdinetatik.

Hau horrela, aurretik jasotako informazio guztian oinarrituz, oinarritzko aurrerakin dokumentu bat (alternatiba ezberdinekin) idatzi da eta abenduan aurkeztuko zaie herritar guztiei beraien iritzia eta ekarpenak jaso ahal izateko.

Dokumentua eta alternatiba ezberdinak, Barandiaran aretoan jarriko dira lekittar guztientzat ikusgai. Abenduaren 20tik urtarrilaren amaierara arte eta erakusketa formatoan, herritarren iritzia eta ekarpenak jasotzeko aukera izango dugu. Erakusketa publiko honen inguruan, azalpenak emateko edo zalantzak argitzeko, solasaldiak antolatuko dira baita.

Laburbilduz, oraindik erabaki asko daude hartzeko eta HAPOren prozesuaren urrats berri honetan zure ekarpenak eta iritzia berriz partekatzea eta jasotzea gustatuko litzaiguke. Beraz, izan aktiboak eta parte hartu. [hapo@lekeitio.eus](mailto:hapo@lekeitio.eus) helbidera ere idatz dezakezu.

Barandiaran Aretoan, 2016ko Abenduaren 20tik 2017ko urtarrilaren 31ra arte.



Indarrean dagoen Arau Subsidiarioen (1996) okupazio eremuak gaur egungo ortofotoaren gainean.

El Plan General de Ordenación Urbana (anteriormente denominado Normas Subsidiarias) es el instrumento de ordenación integral urbanística del municipio que y clasifica el suelo estableciendo los regímenes jurídicos correspondientes a cada clase y categoría del mismo. Esto es, clasifica los diferentes usos del suelo.

Las vigentes Normas Subsidiarias (NNSS) de Lekeitio fueron aprobadas de forma definitiva el 19 de marzo de 1996 y han tenido más de 20 modificaciones puntuales a lo largo del periodo de vigencia.

Ahora, y tomando como base la opinión y las aportaciones surgidas de los diferentes procesos de participación queremos presentar a las y los lekitarras un documento base de avance con las diferentes alternativas para que la ciudadanía pueda opinar y aportar y seguir así dando pasos en este proceso de aprobación del PGOU de Lekeitio.

Este documento y las alternativas que presenta estarán, en formato exposición, a disposición de las y los lekitarras en la sala Barandiaran a partir del 20 de diciembre y hasta el 31 de enero.

Aún hay mucho que decidir, participa. Igualmente puedes escribir a [hapo@lekeitio.eus](mailto:hapo@lekeitio.eus)

## ERAKUSKETA - EXPOSICIÓN

Abenduaren 20tik urtarrilaren 8ra

*Del 20 de diciembre al 8 de enero*

Martitzenetik zapatara 10:00-14:00/17:00-20:00

*De martes a sábado de 10:00-14:00/17:00-20:00*

Domeketan / *Domingos* 10:00-14:00

Urtarrilaren 10etik - 31ra zapatuetan eta domeketan bakarrik.

*Del 10 hasta el 31 de enero solo sábados y domingos.*

Oharra: abenduaren 22an eta 29an, eta urtarrilaren 4an, 18an eta 30ean teknikari baten aldetik azalpenak jasotzeko aukera egongo da. 18:00etatik 19:30etara.



@Lekeitio\_Udala



[www.lekeitio.eus](http://www.lekeitio.eus)



[youtube.com/LekeitiokoUdala](https://youtube.com/LekeitiokoUdala)



[partehartzea@lekeitio.eus](mailto:partehartzea@lekeitio.eus)



[facebook.com/LekeitiokoUdala](https://facebook.com/LekeitiokoUdala)



656702508



# SAN JUAN TALAKO INGURUAN KONPONKETA LANAK



2016ko neguko ekaitzak kalte larriak eragin zituen San Juan Talako inguruan. Ekaitzak baselizako teilak eta terrazen zoladura geruza altxatu zuen eta terraza inguruko hormigoizko baranda apurtu. Horren ondorioz, baselizak eta terraza azpiko lokalek itoginak dituzte eta alderdi bateko baranda falta da. Gunea modu seguruan erabiltzeko eta itoginak desagertzeko konponketa lanak egingo dira. Guztira Lekeitioko Udalak egingo duen inbertsioa 113.272,33€koa izango da. Obra hau egin ahal izateko, Bizkaiko Foru Aldunditik diru-laguntza lortu du Lekeitioko Udalak. Lanen egikaritze epea 2 hilabetekoa izango da printzipioz, eguraldiaren arabera izango da.

## ARMINTXEKO ALTXORRA

Armintzeko koba-zuloan, Larrotegi eta Aldamiz Etxebarria kaleen artean, Iberiar penintsulako historiaurreko labararte multzorik garrantzitsu eta harri-garrienerako bat aurkitu zen 2016ko maiatzean. ADES espeleologia taldeko eta AGIRI arkeologia elkarteko zazpi kide izan ziren aurkikuntzaren protagonistak, tartean lekeitiar batzuk.

Gerora, adituek aztertu egin dute erliebe bilduma eta, zalantza barik, oso berezia eta kalitate tekniko handikoa da; penintsulan egon daitekeen grabatuen multzo paregabe, ikusgarri eta esanguratsuen izan daiteke.

Grabatu multzoa orain dela 14.000 urtekoa da, gutxi gora behera. Berrogeita hamar animaliren irudiak ikus daitezke, tamaina handikoak, eta lerro eta zirkulu erdiko ikurrak. Animalien artean, zaldiak, ahuntzen familikoak, bisontak eta oraindik identifikatu ez diren beste batzuk nabari dira. Baina deigarriena da gutxienez lehoi bi agertu direla eta Iberiar penintsulan, momentuz, bat ere ez.

Historiaurreko santutegi hau, bada, oso garrantzitsua da zenbait aspektutan: irudiak daukaten kalitea, erabilitako teknika eta ikonografia. Orduko gizakiaren bizimodua hobeto ezagutzeko altxor paregabea.



## MENDIETA ONTZIOLAN EGONKORTASUN LANAK

Mendieta Ontziolaren egoera oso txarra da, edozein unetan erortzeko arriskuan dago. Mendieta Ontziola eta ondoko etxea, 2010. urtean monumentu izendatu zuen Eusko Jaurlaritzak, beraz, badu bere garrantzia eta balore kulturala.

Nahiz eta oraindik Mendieta gunea, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministeritzaren eskuetan egon (Kostaldeko Zuzendaritzan), Udalaren asmoa, Udal bezala, emakida eskatzea da, monumentu hau berreskuratu eta honi erabilpen publikoa emateko. Helburu hau lortzeko, ezinbestekoa ikusten dugu erakunde ezberdinen arteko elkarlana (Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Espainako Gobernua eta Lekeitioko Udala).

Elkarlan hau gauzatzen den bitartean, Lekeitioko Udaleko Bulego teknikoak egindako txostenaren arabera, Mendieta ontziola jausteko arriskuan dago eta egonkortasun lanak egin behar zaizkio hainbat arinen monumentua ez galtzeko.

Honen aurrean, eta Lekeitioko Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzaz, egonkortasun lan hauek gauzatzera doa berehala. Guztion erantzukizuna baita monumentu hau zutik eta baldintza on eta seguruetan mantentzea.



## Santo Tomas azoka

2016ko abenduaren 21ean

Lekeitio



Lekeitioko Udalak, Lea-Artibai Landa garapenerako Elkartearen laguntzaz, Santo Tomas Azoka ospatuko du datorren abenduaren 21ean. Urtero bezala, ohiko azokaz gain, eskualdeko etxe-abereen erakusketa egongo da ikusgai.

Egitarauaren helburu nagusia Lea-Artibai eskualdeko lehen arloko nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizleen lana sustatzea eta, aldi berean, haien produktuen kontsumoa bultzatzea da.

Azokan ikusi eta erosi daitezkeen produktu nagusiei dagokienez ondoko hauek aipa daitezke: hestebeteak, ortu-ariak, fruta, txakolina, behi- eta ahuntzesnearen eratorriak, ezitia, ahatekiak, baserriko ogia eta euskal pastela, ardi-, behi- eta ahuntz-gazta, piper txorizeroak, okela, kontserbak ekologikoak, eta baita lore idorrak ere. Produktu freskoak eta sortu berriak izango dira, kasu askotan artisautzako prozesuen bidez ekoizten direnak, eta saltzailea zuzenean ekoizten duen pertsona bera izango da.

MusiKaia, musika eskolako ikasleak giroa alaitzen ibiliko dira.

Azoka honen antolakuntza gutxi gora behera 5500€ko kostua du eta, BBK Gizarte ekintzaren laguntza jasotzen da.



@Lekeitio\_Udala



www.lekeitio.eus



youtube.com/LekeitiokoUdala



partehartzea@lekeitio.eus



facebook.com/LekeitiokoUdala



656702508

9



## SAN ANDRES AUZOA

Lekeitioko Udala San Andres auzoa biziberritzeko lehen pausoak ematen hasi da. Auzoak irisgarritasun falta, inguruarekiko konexio traketsa eta urbanizazio zaharkitua ditu arazo handien artean, eta Lekeitioko Udalak hauek konpontzeko konpromisua hartu du.

Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza bati esker, auzoaren ikerketa sozio-urbanistikoa egitera doa. Dokumentu horren helburua, San Andres auzoa "Lehentasunezko Eskuhartze Gunea" izendatzea da. Izendapen horri esker, bai udalak, bai auzokideek beraien obrak egiteko diru-laguntza gehiago jaso ahalko dituzte: udalak urbanizazio lanak egiteko orduan, eta auzokideek beraien eraikinetako irisgarritasun eta eraginkortasun energetikoaren aldeko hobe-kuntzak egiteko orduan.

Udala eta auzokideak azaroaren 18an batzartu ziren. Batzar horren helburua udalaren asmoak azaltzea eta auzokideei beraien elkarlana eskatzea izan zen, proiektua zehaztu eta garatzekoan.

Aldi berean, auzoko erabilera publikoko lurralde udalaren esku uztea ere eskatu zitzaion, datorren urtean egitea espero den urbanizazio proiektuaren arabera egingo diren lanak gauzatu ahal izateko.

San Andres auzoa, Itsas Gizarte Institutuak (ISM) Lekeitioko Kofradiarekin batera bultzatutako proiektua izan zen. Arrantzaleen familientzako 60. hamarkan eraikitako auzo hau bost eraikinetan banatzen diren 76 etxebizitzak osatzen dute.

## HERRIKO MUSIKA BANDAK 150 URTE



"Lekitto musika bandak" 2017an 150 urte beteko ditu, hain zuzen ere urriaren 14an. Urte osoan ekitaldi desberdinak egongo dira.

Aurrerapen bezela "12 hilabete 12 kontzertu" zikloaren barruan, Deba, Mutriku, Legazpi, Orereta eta Hernaniko musika bandak arituko dira. Urtarrilean Debako musika banda hasiko da ziklo honi hasiera emateko.

Gozatu eta disfrutatzeko aukera ezin hobea herriko eta kanpoko taldeen doinu eta soinu desberdinekin.

## BIZKAIBUS, LINEA HOBETZEN

Lekeitioko Udala Bizkaibuseko 3512 Lekeitio-lurreta-Bilbo linearen iraupena hobetzeko lanean hasi da. Gaur egun herritarrok Bizkaibuseko 3512 Lekeitio - lurreta - Bilbo linea erabiltzea kasu askotan ordu ta erdiko bidaiak izaten da.

Lekeitioko Udaleko Udala Gobernuak denbora hau murrizteko hartutako konpromisua bete nahian, azterketa sakona egiten dabil arlo honetan adituak direnekin egungo zerbitzua aztertu eta hobetzeko asmoarekin.

Azterketaren ondorio, linea hobetzeko aukerak eta bideak planteatuko dituen txostena izango da zeina urte bukaerarako prest egongo den.

Ondoren, txostenean agertzen diren alternatiba guztiak Bizkaiko Foru Aldundiari helarazi eta azalduko zaizkio eta Udalak tinkotasunez jokatu du, denbora murriztearen garrantzia aldarrikatuz, gaur eguneko denbora gehiegizkoa baita eta garraio publikoaren erabilera sustatzeko denbora oinarritzko faktorea dela eta Lekeitiok daukan garraio publiko bakarra autobusa dela gogoraraziz Aldundiari.

## GAZTEGUNEKO TEILATUA

Gazteguneko eraikinak, urteetan arazoak izan ditu teilatuan. Ez konpontzearen ondorioa itogin agertzea izan da baina 2016 bukaeraren arazoari irtenbidea emango dio Udalak.

Eusko Jaurlaritzatik 15.800,00 euroko diru laguntza lortu du Udalak konponketa lanak aurrera eramateko.

Hala ere, teilatua ez da Gaztegunek daukan arazo bakarra. Eraikineraren irisgarritasuna ematen duen igogailua ere egoera txarrean dago eta horren ondorioz aspaldian itzalita dago segurtasun neurri bezala. Hori horrela, 2017an igogailua konpontzeaz gain, beste hobe-kuntza batzuk ere egingo ditu Udalak eraikinean.





## lekeitioko udala

### 2017KO UDAL AURREKONTU PROPOSAMENARI EKARPENAK EGITEKO ORRIA

(Parte hartzeko baldintzak: Lekeition erroldatuta egotea eta adin nagusikoa izatea)

IZENA:
ABIZENAK:
NAN:
HELBIDEA:
TELEFONO ZENBAKIA:
HELBIDE ELEKTRONIKOA:
HARREMANETARAKO BESTE MODU BAT:

#### EKARPENAREN AZALPENA:

### Data eta sinadura

#### Orri hau bete ondoren kultur etxean, kiroldegian edo udaletxean entregatu

Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan araututakoaren arabera, jakinarazten dizugu eskaera honetan jasotako datuak, datuon tratamendurako izaera pertsonaleko fitxategi informatizatu batean integratuko direla. Izan ere, fitxategia kudeaketaren funtzionamenduaren onurarako erabiliko da. Aipatu informazioaren jasotzailea Lekeitioko Udala izango dela, adierazitako helburuetarako. Fitxategi honen arduraduna Lekeitioko Udala da eta haren aurrean fitxategia erabili, zuzendu, ezabatu edota beraren aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango da, komunikazioa honako helbide honetara bidaliz: Gamarra kalea 1, 48.280 Lekeitio. Inprimaki hau sinatuz, berariaz baimena ematen duzu zure datuak bertan xedatutakoaren arabera erabiltzeko.

*De conformidad con lo previsto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, sobre Protección de Datos de Carácter Personal, le informamos que los datos recogidos en este documento, se integrarán en un fichero informatizado de carácter personal y dichos datos se utilizarán en beneficio de la gestión. Los datos de este fichero serán consultados únicamente por el Ayuntamiento de Lekeitio para los fines anteriormente citados. La entidad responsable de este fichero es el Ayuntamiento de Lekeitio, ante quien usted podrá ejercer sus derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, dirigiendo una comunicación a la siguiente dirección: Gamarra kalea 1, 48.280 Lekeitio. Mediante la firma de este formulario consiente expresamente el tratamiento de sus datos de acuerdo con lo dispuesto en el mismo.*





# GARAJEAK SALGAI



Atea Kalea 34an  
(lehengo Garabillenekoa eraikinean)

## **INFORMAZIOA**

Lekeitioko Udaletxean  
Bulego Teknikoan  
Tel.: **94 603 41 00**